


## FUNTSEZKO BALIABIDEAK ARRILUZE

Gurdia egitea eta ekoiztea denez gure helburua, material guztia beharko dugu gure proiektua osatzeko. Hasteko, gurdiaren estruktura behar dugu, estruktura hori plastiko birziklagarriaz egingo digute. Ondoren, pantaila adimenduna, bezeroek erosketa egin ahal izateko. Motorra eta sentsoareak gurdiaren parte fisikoetako batzuk ere badira, aparatua motorizatu, produktuak eskaneatu eta elikagaiak bidean biltzen lagunduko dutenak.

GPS bat gehituko dugunez, gutako bat arduratuko da programazioaz. Hark sistema bat sortuko du gurdia ibilbidea egin ahal izateko. Ibilbide hau bezeroek aukeratutako produktuen arabera izango da. Supermerkatuek beren establezimenduetako planoak partekatuko dituzte, sisteman txertatu ahal izateko.



Enpresan behar ditugun pertsonak informatikari, merkataria, ingeniero eta finantza-arloko arduradun bat dira.

Taldeko batek merkataria izango da. Hainbat supermerkatu desberdinetan aurkeztuko du gure enpresako produktua. Bestalde, ekonomiarekin zerikusia daukan guztiaz arduratuko da (Prezioak, diru-sarrerak, gastuak...)

Gure kontaktuak supermerkatuak izango dira haiei eskainduko diegulako gurdia. Beste hainbat kontaktu edukiko ditugu. Gurdiaren pantaila lortzeko "Samsung" enpresarekin kontaktuan jarriko gara, gurdiaren estruktura lortzeko, "Shunfa Decoracion" hitz egingo dugu. Impinj enpresarekin RFID teknologia hornituko digu.